

Haurrak, jaietan partaide

Jolasetan eta
korrika, nagusi ▶ 7



Festa eta kirola uztartuz ospatu dute aurten ere Pedalaren Eguna Tolosan

EHUN ▶ Parte-hartzaile ugari bildu ziren Oriako Txirrindulari Eskolak antolatutako probara: 100 inguru

ANITZA ▶ Garagardo Festaren eta Mugikortasun Astearen barruan antolatu dute aurten ekimen hori ▶ 6



Partaide batzuk, atzo. G. AZKUE



Oinezkoentzako guneko eta bideak eskatuz ekin diote Mugikortasun Asteari

TOLOSA-ZIZURKIL ▶ Naturaren aldeko pausoak emanez hasi zuten herenegun Tolosan Mugikortasun Iraunkorraren Astea. Ikastetxeetako haurrek eta irakasleek 24 ordu oinez egitasmoan parte hartu zuten, izan ere, eta herriko ikastetxe guztiak zabaldu zuten haien aldarria. Ekimenari amaiera emateko, festa egin zuten atzo Trianguloan—argazkian, goian—. Zizurkilen ere ari dira Mugikortasun Astearen baitan ekitaldiak antolatzen, eta atzo bizikleta txokea egin zuten plazan. Teknikariek hiru orduz jardun zuten bizikletak konpontzen —behean—. M. SOROA-G. AZKUE ▶ 4

ANJEL LARRAÑAGA ▶
ARRAUNLARIA

«Arraunera bideratu behar dira gazteak eskualdean»

Presaren puzgarriarekin batelak Zerkausitik zezen-plazaraino iritsi daitezkeela esan du ▶ 5



Anjel Larrañaga. NOELIA LATABURU



BERROBI ▶

Irakaskuntzari agur

Jubilatu arte, 26 urte egin ditu Bittor Madinak Berrobiko eskolan maisu ▶ 2,3



UZTURRETIK
AMAIA AGIRRE

Ama eta amona

Egutegiak ez du gaur amaren eguna denik agertzen, baina gaur ere amarekin gogoratu naiz. Berarekin momentu zail edo gogorretan soilik oroitzen naizela usteko du, baina gaur ez naitzaio laungunta eske joango. Gaur irrifarre egin nahi diot, esker oneko keinu bat.

Karmeletz Jaiok Amaren eskuak lanarekin irabazi du Igartza Saria. Urtebete-tarte du amaren esku horiek hezur-mamitzeko, ezagutzeko, ezagutarazteko. Gure amaren eskuek ere mereziko lukete sari bat. Ez jostun onena delako, ez sukaldaririk onena delako. Ezta talogile abile-nak delako ere. Amaren esku ahurrek haur nintzetarik babestu nautelako agian.

Arantxa Iturbek *Ai ama!* zioen, Urtz taldeak *Ai amato negua dut zai*, Almodovarrek *Todo sobre mi madre*, Xabier Letek *Amaren bularra haurraren janari*, Mikel Laboak *Ama, eten dezagun zilbor-hestea*.

Ez dakit seme-alabak ihes joaten ote garen, baina gure amak ezin du gure pauso bakoitza zuzendu, zaindu, jarraitu. Bai, ordea, bilobarenak. Bilobak soilik heltzen dio orain eskutik. Eskuekin agintzen dio nora joan nahi duen, zer nahi duen. Eta amonak dena eskura jartzen dio. Eskuzabal. Amonaren eskuek amaren bularra adina asebetetzen dute etxeko txikia. Amonak biloba goxatu eta bilobak amona gozatzen du. Gu hazi eta hezi nahi izan gintuen emakume hura orain bilobak bizi du.

Gure amaren irrifarra eta zoriona xamurragoa eta hunkigarriagoa iruditzen zait bilobari begira dagoe-nean. Gure ama amona egin dute, baina ez da amondu. Ama ondu egin da. Hitz joko bat baino ez zen, ama, lasai.

Baina non da aitaren figura, ez dut aitatu ere egin, baina ez zait aitaren batean ahaztuko. Aitaren alaba naizela diote gainera. Gaur ere gure aita a(i)tonduta aterako da bere bilobarengana.

GUTUN@K ▶



Berriz ere

Amezketako udal hauteskundeetako emaitzak izan ziren: Ametzak 290, Amezketarrok Elkarlanean 227 eta Txindokipe 126. Egun, Amezketako Udala osatzen dute Amezketarrok Elkarlaneaneko 5 zinegotzik eta Txindokipeko 2k. Ametzak taldeak ez du bertan inongo ordezkariarik.

Ametzak taldeak egoera horri konponbidea emateko eta amezketarren borondatea bete ahal izateko, hots, herritarren %45a ordezkariarik gabe ez uzteko, joandako uztailean proposamen hau egin genien bi taldeei:

Hauteskundeetako emaitzak horiek zirela eta, herrian edozein erabaki hartzeko eta aurrera eramanez ahal izateko, bi taldeen adostasuna nahitahiezkoa zela. Beraz, guk organo extraofizial bat eratzea proposatzen dugu, non, hiru taldeek, baldintza berdinetan, erabakiak hartzera iritsi beharko luketen. Betiere, badakigu, bi talderen oniritzia beha-

rrezkoa izango litzatekeela. Ondoren, erabaki horiek udalbatzarrean ofizialki aurrera eramanez beharko lirateke.

Bilera eskatu genien proposamena lantzeko. Bi taldeek gaia irailerako uzteko eskatu zigten.

Txindokipek bi idatzi eman zizkigun irailaren 1ean. Batean zioen ofizialtasuna bilatu behar genukeela. Bigarrenean zioen LOREG legearen 182.2 artikulua aplikatzea zela bidea. Euren bide horri ekin ziotela, zinegotzi batek dimititu eta haren kargua Ametzak taldearen esku uzteko.

182.2 artikulua dio kargua hartzeko, pertsona heldua eta hautagai izateko galerazten dion baldintzarik gabea izan behar duela. Eta Ametzak taldeko zerrendako hautagaiak —Amezketan bozkatuenak—, Espainiako gobernua egin dako legearen arabera, ez gara hautagai baliagarriak.

Gainera, Alderdien Legea indarrean dagoen bitartean, Ametzak taldeak ezin du ofizialki inon agertu. Txindoki-

pek proposatutako ofizialtasuna bilatzeko ahaleginak egitea Espainiako Alderdien Legeari amen esatea litzateke gure ustez, legez kanpoko taldea garena onartzea litzateke elako. Gainera, gu ez gaude legez kanpo amezketarrentzat, Espainiako Legearentzat bizi.

Iraila hasieran hitzeko hartu-emanik ez zegoela ikusirik, Ametzak-eko kideek, berriz ere, hitzordua eskatu genien bi taldeei.

Amezketarrok Elkarlanean taldeak —alkatetzaren duenak— irailaren 13rako eman zigen hitzordua. Bertan, udalbatzarrean aurretik bilera informatiboetara joateko gonbidapena egin zigten, baina inolaz ere erabakiak hartzeko ahalmenik ez zigten eskaini; beraiatzat 290 boto zuriek ez dute esanahi berezirik.

Txindokipek bilerari ezetza eman zion, oso lanpetuta zuela argudiatuz. Gero, irailaren 16an, idatzia bidali zigen guk aurretik azaldutako argudioei erantzunez. Argi ikusi

dugu ez gatzela bat 182.2 artikulua irekitzen duen prozesuarekin; dena den, gaiaren inguruko iritzi ezberdinak onartzen ditugu. Idatziarekin batera hitzordua eman digu irailaren 20rako, baina, gure ustez, eztabaidak ez du izan behar artikulua inguruko-koa, Udalaren funtzionamendua inguruko, baizik.

Alderdien Legea bera da gaizki dagoena, menderatu eta egurtu behar dena. Eta gu horretan ari gara hasieratik, ulertzen edo ulertu nahi ez bada ere.

Guk ez dugu beste muturrekorik hartu nahi. Lehen ere, muturreko eta muturreko mehatxu gehiegi jaso ditugu baretze errurik gabe.

Horregatik diogu, berriz ere, legeari popatik eman eta ilegalizatutako zinegotziek Udalean normal funtzionatu behar dutela, herriak eskatu zuen bezala, batzordeetan eta erabakietan parte hartuz, ofizialtasunak ahaztu eta praktikotasunari begiratuz.

AMETZAK TALDEA ▶ AMEZKETA

BITTOR MADINA ▶ IRAKASLE JUBILATUA

IÑIGO TERRADILLOS

Bittor Madina duela 26 urte iritsi zen Berrobira irakaskuntzan lan egiteko asmoarekin. Oñatin jaioa da, eta inguru hartan ere aritu izan zen eskoletan lanean Berrobira etorri aurretik. Euskal Herriko eskola publikoetan euskarari bultzada ematen aintzindari izan den irakasle taldearen barruan sartu behar da Bittor Madina. Irakasteko modu berri batekin ere hasi ziren, aurrerakoiagoa, pedagogia berriak aplikatuz. 26 urte Berrobiko eskolan maisu aritu eta gero jubilatuzko ordua iritsi zaio Bittor Madinari. Atzera begira jartzean, harro eta pozik sentitzen da duela 25 urte beste irakasle batzuekin batera hasi, eta lortu dutena gogoratuz. Herri txikiak eskolek duten garrantziari buruz eta bizitzak aurrerantzean eskainiko dionari buruz hitz egin dio HITZARI solasaldi lasaiean.

Nola gogoratzen dituzu eskoletan euskara sartzeko zireneko lehenengo urrats haiek?

Lan asko egin behar izan genuen. Euskara eskola orduetatik kanpo irakasten hasi ginen lehenik, gero A ereduaren euskara irakasgai bezala sartu zuten. Gipuzkoan eta Bizkaian eskola publikoetan euskara sartzeko

«Oso harro sentitzen naiz lortu dugunarekin»

Orain gutxi jubilatuta da Bittor Madina hainbat urtez irakasle jardun eta gero; azken 26 urteak Berrobiko eskolan egin ditu

behar handia ikusten genuen, gure garaian gertatutakoa berriro errepikatzea ez genuen nahi eta. Elebitasun batzordea sortu zen orduan, eta bilerak eta hitzaldiak egiten genituen gurasoekin eta irakasleekin, euskararen inguruan zegoen mesfidantza aldatzea lortzea zelarik helburua. Hasieran txikienekin hasi ginen irakasgai guztiak euskaraz ematen, Lehen Hezkuntzakoei bietara ematen zitzaizkielarik eskolak; kolpera ezin zen euskara sartu. Urte batzuen buruan, ordea, D eredua sortu zen, eta irakasgai guztiak euskaraz ematen hasi ziren denentzat.

Zailtasun askorekin, baina lan handia egin duzue; hasieran, batik bat.

Irakasle askok lan handia egin du gaur egun gauden egoerara aliegatzeko. Bestalde, materiala ez genuen euskaraz eta dena itzuli beharra zegoen. Katalanetik hainbat liburu itzuli ditu-

gu eta guk ere eratu behar izan ditugu euskarazko libururak.

Horrez gain, irakasteko modu berri batekin ere hasi zineten garai hartan, ezta?

Jarrera aurrerakoi batekin hasi ginen lanean. Irakasteko modu berriak sartu nahi izan genituen. Ikaslearengandik hurbil egon behar zuela irakasleak sentitzen genuen eta beraiei iritziak eskatzea beharrezkoa zela.

Ordura arte egin ez ziren gauzak hasi zineten egiten eskoletan.

Bertsolaritzarako zaletasuna bultzatu nahi izan genuen doinuak eta errimak landuz. Honetaz gain, ikasleei munduan gertatzen zirenen berri ematen genien; hori oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun. Gainera, errespetua eta ikasleen zoriona eta askatasunaren bultzatzea landu dugu baita ere. **Irakasleen artean zer nolako giroa izaten zenuten lehen?**

Oso ondo konpondu izan naiz alboan izan ditudan irakasleekin. Garai haietan astean behin Berrobiko tabernan elkartzen ginen hainbat eskolako irakasleak. Bazkari bat egiten genuen eta eskoletan genituen arazoez hitz egiten genuen. Lan antolatuta, materiala trukatu... elkarlana egiten genuen.

Haurrak herri txikiak eskolatar eramateak garrantzia handia du...

Guk herri txikiak eskola publikoak defendatu izan ditugu beti. *Eskola txikiak bizirik* leloa erabili genuen hasieran, eta geroago, berriz, *Eskola txikiak, herria bizirik*. Herri txikiak haurrek bertako eskolan ikasteak duen garrantzia adierazi nahi zuten lelo horiek.

Berrobiko Berrobi-berri urte-kariaren sortzaileetako bat ere bazara.

Idea hori bururatu zitzaigun eta nik irakasle izan nituen baztuz ere badaude proiektu ho-

IRITZIA ▶ IDOIA REZABAL (TOLOSALDEA GARATZEN-EKO TURISMO TEKNIKARIA)

Turisten bisitak bikoiztu egin dira aurten

Tolosaldea Tour-ek balantze positibo egiten du uztaileari eta abuztuari buruz, erakundearen bulegoetara informazioa eskatzera etorri diren eta telefono, posta elektronikoa eta faxez informazioa eskatu dutenen kopuruak ia bikoiztu egin duelako iazkoa; hau da, jaso diren informazio eskaerak guztira iaz baino %99,84 gehiago izan dira. Datu horrek berretsi egiten du eskualdeak gune turistiko bezala eman duen aurrerapausoa, batez ere turismo berdeari, senderismoari eta nekazal turismoari dagokienez.

Gainera, Tolosaldea Tour-ek aurten aurrea hartu zion udako kanpainari eta jada ekainean zehar Tolosaldeko gidaliburu berria banatu zuen eskualdeko ostatu, jatetxe, denda eta gainontzeko turismo guneetan. Gida-liburu horretan oso informazio zabala eskaintzen da honako gaiei buruz: ostatuak, kultura gastronomikoa, 70 jatetxetik gorako zerrendarekin, ekitaldi eta antolaketa bereziak, mendi ibilbideak, eskualdeko komertzioak, tradizio eta kulturari buruzko informazioa, telefono interesgarriak, museoak, Tolosaldea osatzen duten 28 udalerrien aurkezpena, eta abar.

Gida-liburuaz gain, ez dugu ahaztu behar *Tolosaldeko mendi ibilbidea* liburu ere argitaratu dela; horretan proposatzen diren 39 ibilbideak Gipuzkoako Mendi Federazioak gomendatu eta homologatuak dira.

Aurreko urteetako joera ikusi da aurtengoan ere, eta hala euskaldunak, kataluniarrak, madrildarrak eta atzerritarak izan ditugu bisitari Tolosaldeko eskualdean. Bisitari horien guztien %24,32 kataluniarrak izan dira, hau da, iaz baino %15,1 gehiago; Madrileko bisitariak, ordea etorritako guztien %8,85 izan dira, horien gehikuntza, beraz, %170 hazi da iazkoarekin alderatuz. Gainontzekoei dagokienez, turista guztien %12,78 atzerritarak izan dira, hau

da, %77,3ko gehikuntza iazkoarekin alderatuz; horietako asko hegoamerikarrak izan dira, batez ere beren senideak ikustera etorritakoak. Bestalde, aipagarria gertatzen da informazio eske bulegoetara jo duten gipuzkoarren kopurua, informazioa eskatu duten guztien %36,28 izan baita; azken bisitari hauek eskualdekoak ez diren lagun edota familiakoekin etorri dira gure eskualdera, eta guk eskaintako informazioaz baliatu dira Tolosaldea ezagutzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko gainontzeko probintzietatik eta Nafarroatik etorritakoak bisitari guztien %5,08 dira. Gainontzeko %12,7 Espainiako bisitariak dira (Katalunia eta Madril izan ezik). Estatistikaren arabera, turistek 3-4 egun

bitarte egiten dituzten eskualdean eta gehienak 30-40 urte bitartekoak dira; horietako asko haurrekin etortzen dira.

Aurten berriro nabarmendu behar dugu, batez ere eskualde osoan zehar, ez dela leku libre bakar bat egon abuztuko hilabetean. Turista bat baino gehiago bidali behar izan dugu Nafarroara, Altsasura zehazki, gure eskualdeko ostatuak gainezka zeudelako. Nagusi Etxea Bedaioiko landa turismo berriko arduradun den Elena Aierbek adierazi digunez, ez zuen espero hainbeste turista etorriko zenik, eta are gutxiago ia bi hilabeteetan zehar «beteta» txartela jarri beharko zuenik, kontuan izan behar da Nagusi Etxea ireki berria dela, uztailearen bian justu-justu.

Tolosa izan da eskualdeko herrietan bisita gehien jaso duena, dela Alde Zaharrak duen xarma eta Santa Maria elizagatik, dela uda honetan liburuxka berria argitaratu duen Gozogintzako Museoarengatik, eta abar. Eguerdik aldean gora egiten dute jatetxei eta, orohar, gastronomiari buruzko informazio eskaerak. Aipatu behar da Altzon bertan egin zen Altzoko Erraldoiari buruzko erakusketa. Localia TV Bizkaia kateak erreportai espezifiko bat eskaini zion erakusketari eta bisitari asko erakarri zituen gure eskualdera uztailean zehar.

GIDA LIBURUA

«Tolosaldea Tour-ek aurten aurrea hartu zion udako kanpainari eta ekainean gidaliburu berria banatu zuen eskualdeko turismo guneetan»

BETETA

«Eskualde osoan zehar ez da leku libre bakar bat egon abuztuko hilabetean; turista bat baino gehiago bidali behar izan dugu Nafarroara»



IÑIGO TERRADILLOS

PERTSONALKI ▶

▶ Oñatin jaioa ▶ 1944ko otsailaren 9an ▶ Lehen Hezkuntzan diplomaturia ▶ Berrobiko eskolako irakasle izan da azken 26 urteetan; jubilatua ▶ Kanpora joaten denean leku lasaien bila ibiltzen da. Hala ere, nahiago du herri txikietan geratu ▶ Filosofia irakurtzea asko gustatzen zaio.

Idazle edo filosofo bat? Tomas Bernard, Victor Hugo edo Xabier Lete, euskal poesian. **Leku bat?** Herrizuloa naiz; herri txikietan lasai bizitzea gustatzen zait. **Afizioak?** Lagunekin solasaldiak izatea, ibiltzea, herriko frontoian palarekin edo raketarekin jolastea...

HEZKUNTZA

«Oso garrantzitsua da herri txikietako haurrak herriko eskolara eramatea, bere heziketan eragina baitu horrek»



netan. Herriko jendeari asko gustatu zitzaion urtekaria eta urtero, kaleratu aurretik, beti galdetzen digute ea noiz ikusiko duen argia ale berriak. **Orain, irakasle hainbeste urtean aritu eta gero, jubilatze-ko garaia iritsi zaizu. Zer pentsatu duzu egitea hemendik aurrera?**

Bizitza oso lasai hartzea da nire helburua. Etxeko lanak egingo ditut eta jendearekin solasaldiak izatea gustatuko litzaidake. Liburu onak irakurri, olerkiak idatzi, kirola egin... pozik bizitzea da nire nahia hemen-

dik aurrera, eta horixe egingo dut.

Irakurtzea aipatu duzu, eta filosofiari buruzko liburuak dira nagusi zure etxeko liburutegian, ez da hala?

Filosofia irakurtzea asko gustatzen zait. Jendeak beste irudi bat du filosofiari buruz, baina niri asko lagundu dit. Bizitzarako behar duzuna ikasten duzu filosofiarekin. Voltairerren esaldi batekin geratzen naiz: «Naturak esan digu guri nola bizi, eta ez dugu erlijioen beharrik bizitzeko; langungarri ez badira, behintzat»

TOLOSA-ZIZURKIL ▶ MUGIKORTASUN ASTEA

Naturaren aldeko pausoak

Mugikortasun Iraunkorraren Asteko 24 orduko ibilaldian giro ona, ilusioa eta naturaren aldeko grina izan ziren nagusi

MADDI SOROA

A tzo eguerdiko hamabietan amaitu zen ostiralean 12:00etan hasi zen 24 ordu oinez Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barnean antolaturiko jarduerak. Trianguloan hasi, eta bertan bukatu zen. Helburu nagusia oinezkoentzako bideak eta guneak eskatzea izan zen, ibilbidean zehar, informazioko papertxoak banatu zizkietelarik oinezkoei nahiz autoetakoiei. Ibilbidea txandetan antolatu zuten, eta txanda bakoitzean ikastetxe bakoitzeko haur multzo ezberdinek hartu zuten parte. Txandean iraupena ezberdina izan zen: ordubate, bi ordu, bi ordu eta erdi... Betiere, gaueko txandak egunekoak baino motzagoak zirela. Ibilbideari dagokionez, ikastetxeen arteko bira egin zuten; gauean, ibilbidea motzagoa zen, ordea.

24 ordu oinez lelopeko txangoan Samaniego ikastetxea, Laskorain ikastola eta Hirukide ikastetxea izan ziren partaideak. Gutxi gorabehera, 200 haur inguru ibili ziren Tolosako kaleetan barna, jendea naturaren alde sentibilizatu asmoz. Beraiekin batera, 30 arduradun ibili ziren; irakasleak gehienak. Indarrak hartzeko gune gisa, Tolosako kultur etxea erabili zuten; izan ere, janaria, edaria eta sorospenerako laguntza izan zuten bertan.

Antolatzaileetako batek adierazi zuenez, oso gustura geratu ziren emaitzarekin; Naturaren alde lanean aritzeaz



Samaniego ikastetxeko azken txandako haurrak indarrak berreskuratzen, atzo, Kultur Etxean. MADDI SOROA

gain, ilusioa eta giro ona izan baitziren nagusi ibilaldian zehar. Gainera, espero baina jende gehiago bildu omen zen festara. Ekitaldiari amaiera emateko, ikastetxe banatako haurren bertsoak eta buruhandiak izan ziren Trianguloan.

Bizikleta txekeoa Zizurkilen

Bestalde, Zizurkilen bizikleten txekeoa antolatu zuten atzo, Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barnean. Bizikleta teknikariek, 11:00etan hasi eta 14:00ak arte, bizikletak aztertu, konpondu eta gurpilak puztu zizkieten, doan, bertara hurbildu zirenei.



Bizikleta txekeoa egiten, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. GARAZI AZKUE

EGITARRAUA ▶

GAUR

Erniopeko txirrindulari bira. Tolosa (irteera Triangulotik) eta Zizurkil arteko bizikleta ibilbidea. Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkilgo parte-hartzaileak gehitzen joango dira bidean zehar.
▶ **09:00.** Zizurkilera iritsitakoan, parte-hartzaile guztien artean zozketak egingo dira.

BIHAR

Euskal Herria plaza eta Alde Zaharra, oinezkoentzat.

▶ **17:30.** Txokolata denentzat Euskal Herria plazan.
▶ **18:00.** Ipuin kontalariak, haur liburutegiak antolatuta Euskal Herria plazan.
▶ **20:30.** Zinema Euskal Herria plazan.

ETZI

Euskal Herria plaza eta Alde Zaharra, oinezkoentzat.

▶ **17:30.** Txokolata denentzat Euskal Herria plazan.
▶ **18:00.** Ipuin kontalariak, haur liburutegiak antolatuta Euskal Herria plazan.
▶ **19:00.** Mugikortasun Foroa Kultur Etxeko areto nagusian: Tokiko Agenda 21eko aholkularitza batzordearen saioa. *Tolosako mugikortasun jasangarriaren aukerak eta erronkak* aztertuko dira, herritarren partehartzearen bitartez Tolosako mugikortasunari buruzko diagnostikoa egiteko.
▶ **20:30.** Zinema Euskal Herria plazan.

OLASAGASTI ANAIAK
ZUMETA BATEKTEA

Ondo pasa
Garagardo
azokan!

Tel.: 943 67 28 78 Agintari, 9 - behea 20400 TOLOSA

HITZA, eskualdeko plaza

661 678 818

Toki aproposa iragartzeko

Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

ETXEBIZITZA SALGAI AMAROTZEN (TOLOSA)

3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua, erdi amueblatua eguzkitsua, ikuspegi onak

607 534 670
(20:00etatik 22:00ak bitarte)

Aktiba Txartela ERABARDIKO KUTXIA

Abantaila bat
7 egun zure alde

VISA

CAJA LABORAL EUSKALDEKO KUTXIA

TOLOSKO

Alluna

SALTXITXA

Etor zaitze!
Tolosako saltxitxa onenak probatzera
bai Garagardo Festan eta urte guztian

ANJEL LARRAÑAGA ▶ ARRAUNLARIA

«Orion arraunaren praktika berpizteko proiektua aurkeztu dugu»

Helburua ibaiaren maila igotzea dute presa puzgarri bat jarriz,
Tolosaldeko gazteak bideratzeko



HITZA

NOELIA LATABURU

36 urteko tolosar hau arraunari hertsiki lotuta egon da gaztetatik. Hamabost urte zituela Tolosako bateletan hasi zen Izaskungo Kirol Elkartearekin eta hemendik Orioko traineran arituzeraino heldu zen. Gaur egun ere arraunaren munduko proiektu ezberdinetan murgildurik dirau, besteak beste, Tolosako Oriá ibairako presa eraikitzen ari da.

Sakrifizio handiko kirola da arrauna. Zerk bultzatu zintuen hau aukeratzera?

Gaztea nintzenean, herriko elkarrekin Oriá ibaian biltzen ziren bateletan aritzeko; ni beti haien entrenamenduei begira egoten nintzen ibaiaren goiko aldetik. Behin jaistera gonbidatu ninduten, saiakera egin nuen, gustua hartu nion... eta horrela, gaur arte.

Oriatik Oriara. Nolakoa izan zen zure ibilbidea?

Sakrifizio handia eskatzen du. Asteko zazpi egunetan entrenatzen da, ez dago atsedetik. Denboraldiak, aldi berean, oso gogorrak dira. Azaroan hasi eta iraila bitartean etengabe aritzen zara. Abendura arte denak fisikoa lantzeko entrenamenduak izaten dira. Ondoren tartekatuta egiten da fisikoa eta trainera martxora arte. Hil honetan hasiko dira konpetizioak, bateletan lehendabizi, trai-

DATUAK ▶

IBILBIDEA

- 1979-1988.** Tolosan bateletan, Izaskun Kirol Elkartearen.
- 1987-1989.** Donostian Luis Carril izeneko traineran.
- 1990.** Zarautzeko traineran jardun zuen.
- 1991-1992.** Orioko traineran aritu zen ACT ligan

nerilak ondoren eta trainerak azkenik; udara amaiera arte.

Eta erritmo gogor honekin zerbaiten falta somatzen al da?

Lotura hori konpentsaturik dago. Zuk koadrila batekin hartzen duzun konpromisoa da. Beraiek gabe zuk ez duzu entrenatzerik eta alderantziz. Faltan botatzen dena arraunaren balorazioa izango litzateke. Ekonomikoki ezinezkoa da arraunetik bizimodua ateratzea. TKE liga goreneko kirolari batzuk izan ezik.

Konpetizioak alde batera utzi zenituen, baina arraun mundutik ez zara erabat baztertu. Ez, baina zaletasun moduan hartzen dut orain. Nire lanak ematen dizkidan ordu askeetan entrenatzaile aritzen naiz: Orion mutil eta nesken talde infantilak eta kadeteak eramaten

PALMARESA

- Tolosan.** Gipuzkoako Txapelketa jubeniletan eta liga jubeniletan.
- Donostian.** Laugarren postua Kontxan.
- Orion.** 1991. urtean Gipuzkoako, Euskadioko eta Espainiko txapelketak eta bigarren postua Kontxan.
- 1992. urtean Bandera.

ditut, baita Getariako seniorrak ere.

Entrenatzaile gisa arraunlari zineneko garaipenak lortzen dituzu?

Ezin gara kexatu. Getariako traineruarekin A mailako Liga Federatiboan sartzea lortu dugu eta maila ona erakutsi dugu. Oriok bere TKE ligarako aukeratu ez zituen arraulariekin kontatu dugu eta emaitza onak lortu ditugu.

Tolosan ere ikus ditzakegu batelak azkenaldi honetan. Badirudi berriz ere piztu dela arraunerako grina herrian...

Bai, proiektu bat aurkeztu dugu Udalean eta Foru Aldundian: ibaian presa puzgarri bat ipini nahi dugu Nafarroako zubitik gertu uraren maila igo dadin. Era honetan, batelek Zerkausitik zezen-plazarainoko bidea egin ahalko lukete. Orain,

LAGUNTZA

«Udaletxeen laguntza behar dugu arraunaren egoera hobetzea lortu nahi badugu»

SAKRIFIZIOA

«Arraunak eskatzen duen sakrifizioa ez dago batera baloratuta: ez dago diru laguntzarik»

berriz, ezin dira Zubi Berritik pasatu. Gure helburua eskualdeko gazteak bideratzea da. **Proiektua aurrera aterako balaiz, jendearen artean jarraitzea izango lukeelakoan al zaude?**

Pentsatzen dena baino gehiago. Inongo deialdirik egin gabe jende asko hurbiltzen da arratsaldeetan. Barnealdeko herrirentzat zailagoa da eta proiektuarekin lortu nahi duguna da, jakintza batzuk hartu eta gero, kostako taldeetara joateko erraztasunak ematea. **Erakundeekin laguntzarik jaso al duzue?**

Oso laguntza gutxi dago. Sakrifizioa oso handia da klubetara aldetik, baina ez dago baloratuta. Eskakizuna luzatu nahi nieke udalei. Tolosaldean arrauna oso egoera txarrean dago, baina laguntzarekin jendeak kirol hau praktikatzeko aukera izan dezan lor daiteke.

Zer motatako laguntzak?

Orioko edo Donostiako zenbait ikastolatan, besteak beste, arrauna irakasgaia da. Mota hauetako ekimenez ari naiz, izan ere, Tolosan gazteek behar duten bateletara gerturaztea, heldu batekin ez bada, segurtasuna dela eta.

Orain, Kontxako estropadak pasatu berri diren honetan, pil-pilean dagoen gaia ezin ahaztu: doping-a.

Doping-a kriminalizatzen ari dela iruditzen zait. Kontrolak noski egon behar dutela, baina formalizaturik. Aurten Kontxan pasatu dena kapritxoak iruditzen zait. Ezin dena egin da behin lehen txanda pasatu denean kontrolarekin.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoetaidea.** Medikua: 65 23 39
- Berastegi-Elduain.** 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx: 672411
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

- Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb:693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Bronte. Korreo 20 (Tolosa). 943 67 60 13.
- Gimeno. Elbarren 52 (Leitza)112
- Bihar.** Olarreaga J. Martin Jose Iraola 10 (Tolosa) 943 67 24 38.
- Gimeno. Elbarren 52 (Leitza)112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosalde@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aitz.** 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoetaidea.** 687 41 00 22 anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitzaidea.** 687 41 01 18. leitzaidea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKATZEKO

- Kabina.** Kabina alokatzen da masaje edo estetikarako. 686 37 86 63.
- Tolosa.** Pisu edo logela bat alokairuan hartu beharra Tolosan. 669 50 21 81.
- LANA**
- Villabona.** Neska bat behar da Villabonan taberna lan egiteko. 07:00etatik 13:00etara. 650 48 79 34
- Leitza.** Pertsona bat behar da asteburuetan Leitzaoko taberna batean lan egiteko.619 450249.
- SALGAI**
- Opel Zafira.** 3 urteko Opel Zafira salgai. Deitu 618 37 15 43ra.

GARAGARDO AZOKA ▶

Kirola eta festa uztartuz egin dute aurten Pedalaren Eguna

Oriako Txirrindulari Eskolak antolatu du, beste behin, lasterketa haurrentzat



Bost urte eta hamabi urte bitarteko haurrek atera ziren. G. AZKUE



Lehen gaztetxo inguruk eman zuten izena Pedalaren Egunean. G. AZKUE



Adinaren arabera, txandaka irten ziren haurrek helmugatik. G. AZKUE



Lehen hiru sailkatuentzat eta azkenarentzat izan ziren sariak. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Ehun bizikleta, ehun kasko eta ehun txirrindulari bildu ziren atzo Tolosako San Frantzisko kalean, Pedalaren Egunean. Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, etxeko txikienek izan zuten festaz gozatzeko aukera, Garagardo Festaren eta Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan antolatutako ekintza horretan. Ez da, ordea, ekintza hau antolatzen duten lehen urtea, Garagardo Festak daramatzan bezainbeste urte

daramatza eta elkarteak lasterketa prestatzen.

Bost urte eta hamabi urte bitarteko gaztetxoak jarri ziren atzo bizikleta gainean, antolatuzaileek jarritako buelta egiteko asmotan. San Frantzisko kaltetik abiatu ziren, Nafarroa etorbidean barrena joan eta parketik buelta eginda iritsi behar zuten berriz ere San Frantziskora.

Hiru taldetan banatu zituzten lasterkariak: batetik, bost eta zortzi urte bitarteko haurrek atera ziren, horiek itzuli bat

egin behar izan zuten. Bederatzi eta hamar urtekoek lau buelta eman zituzten, eta, hamaika eta hamabi urteko lasterkariak zortzi itzuli egin zituzten amaitu aurretik.

Lehenik eta behin, bost eta zortzi urte bitarteko neskek egin zuten beraien buelta; eta hauek bukatu ostean, txandantxandan abiatu ziren maila bakoitzeko neskek eta mutilak.

Baina ez zen lasterketa hau izan Garagardo Festaren inguruan antolatutako ekintza bakarra. Arratsaldean bertan,

Gariguay pailazo taldea egon zen Plaza Berrian giroa alaitzen eta txikienei ikuskizuna eskaintzen.

Garagardo Azokaren baitan antolatutako ekintzak gaur amaituko dira. 17:00etan haur jolasak izango dira, eta ordu berean, xake partidak ikusteko aukera izango da Plaza Zaharrean Tolosako Xake elkartearen eskutik.

Ekintzekin batera, aurtengo Garagardo Festak ere agur esango du, 23:30ean, hurrengo urtera arte.

TOLOSA ▶

Goiza alaia izan zen atzo herriko azoka guneetan

Berrikuntza gisa, pikua, ziklamena eta pentsamendua agertu ziren saltokietan

PABLO ALBERDI

Goiza alaia eta argitsua azaldu zen atzo Tolosan, eta horrek jendea azokara joatea bultzatu zuen. Erosle gehiago agertu zen eta salmentek ere gora egin zuten.

Udako produktuak esku-ragarri daude oraindik, eta hauei berriak gehituta, zerranda luzea sortu zen atzo azoketan.

Berrikuntzen artean, pikua, ziklamena eta pentsamendua agertu ziren.

AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Inbaurra	3,00	4,50
Arrautzak	1,30	2,10
Irasagarra	3,00	6,00
Artoogia	3,50	-

Produktu ekologikoak

Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,00
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,74	2,01
Letxua	1,01	-
Aza	2,53	4,05
Baraburia	1,62	7,60
Kogoiola	0,85	-

Berdura plaza

Lilila	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Porrua	2,40	-
Begonia	1,20	-

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROA

Antolatzailea: Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarte

- **Hasiera:** 2004ko urriaren 4an
- **Orduetgia:** 2 aukera: 16:45 - 18:45 / 19:00 - 21:00
- **Amalera:** 2005eko ekainaren 1go astean
- **Non:** Inmaculada Ikastetxea
- **Egunak:** asteartea eta ostegunetan
- **Argibideak:** Tlf.: 943 67 36 29 - Idazkaritza ordutegia: 8:30 -14:00 / 15:30 - 18:00

Oharra: Lortutako ziurtagiriak Madrilgo CNSEren baliozkotasuna izango du (bere barne Euskadiko Pertsona Gorren Federazioa)



Promoioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA

Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

ALEGIA ▶ JAIK

Kalean gora, kalean behera... korrika

Hiru taldetan banatuta, hogeitabi korrikalarik hartu zuten parte atzo Kalebeherako jaien baitan antolatutako krosean



Zortzi haurrek hartu zuten parte Kalebeherako krosean; urduri ageri ziren irteera anean. O.ESKIXABEL

O. ESKIXABEL

Guztira, hogeitabi partehartzaile, txiki eta heldu irten ziren Kalebeherako krosean. Bost, sei eta zazpi urte bitartekoak izan ziren irtetzen lehenengoak; ondorengo korrika saioan, zortzi eta hamar urtekoak eta, azkenik, helduak abiatu ziren. Azken horiek marka hausteko asmorik gabe atera zirela zioten ikusleek «oso mantso» zihoa zela esanez. Baita asmatu ere; ez zuten atzo Iñaki Pagolak 1994an ezarritako 10'43ko marka haustea lortu.

Krosean parte hartu zuteneko askok pilota txapelketan jokatu dute gaur. Bost eta sei urtekoen mailan, Irazustak eta Arandiak Gabilondo eta Mendez izango dituzte aurrez-aurre eta sei eta zazpi urtekoen, Altuna eta A. Irazustabarrena eta Goikoetxea eta Beloki bikoteak izango dira finalean.

Benjaminetan, Goñik eta Amianok eta Zabalak eta Or-

EGITARRAUA ▶

GAUR

11:30. Palako finalak.
12:30. Herriko dantzariak.
Ondoren. Txakoli-dastaketa.
14:30. Bazkaria.
17:00. Eskupilotako finalak.
Ondoren. Sokatira-olinpiada.
21:00. Zahagi ardoa.
Ondoren. I. Mus Txapelketa.

mazabalek jokatu dute finala. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke aurrez-aurre izango dira, bestalde, Navarro eta Llamas eta Oiarbide eta Contreras.

Alebinetan, Del Pozo eta Zabalak bikoteak I. Irazustabarrenaren eta Artolaren aurka jokatu dute. Hirugarren eta laugarren postua Venegas eta Murua eta Arnedo eta Arandia bikoteen artean erabakiko da.

Erbeta pilotalekuan jokatu dute aipatutako partidak.

TOLOSA ▶ JAIK

Jai giroa goizean goizetik

Auzoko gaztetxoek jolasean eman zuten goiza; gauean helduek hartu zuten lekukoa sagardo dastaketarekin

OLAIA ESKIXABEL

Lokarriak askatu, zapatalak kendu eta gaztelu puzgarriaren barrura presaka sartzen ziren Izaskun auzoko txikiak. Saltoka eta jolasean eman zuten goiz osoa atzo. Gaztetxoentzat gaztelua txiki geratzen zela, eta joko desberdinak antolatatu zituzten. Koskol bilketarekin hasi ziren; talde desberdinak osatu eta errelebo, batzuk koskolak jaso, besteek jarri, alde batetik bestera korrika aritu ziren animo ohien artean. Zaku lasterketa, sokatira... egin zituzten ja-

EGITARRAUA ▶

GAUR

11:00. Auzoko hildakoan aldeko meza.
12:00. Gizonezkoen Toka Txapelketa.
14:30. Bazkaria.
Ondoren. Mus txapelketa.
16:30. Emakumezkoen Toka Txapelketa.

rraian. Harrijasotzaile gisa ere aritu ziren batzuk, marka berri bat jartzeko asmoz. Benetako harriak ziruditen; kiloak mar-

katuta zituzten, ondo margotuta zeuden... baina beste materiale batez eginak. 100 kilotik gora pisatzen zutela irakur zitekeen eta gaztetxoek keinuak ikusita sinesteko modukoa zen. Arratsaldean, futbito txapelketako sari banaketaren ondoren, txokolatadara eta karakera gerturatu ziren gaztetxoak.

Helduen txanda

Helduen tartea gaua helterara iritsi zen. Sagardo dastaketa 20:00etan hasi zen; jateko pin-txo ugari eskaini zituzten.



Jolasean eman zuten atzo goiza auzoko txikiak. O.ESKIXABEL

Gauean, DJ Pantxoarekin erroeria izan zen txosnetan.

Gaur Emakumezkoen Toka Txapelketak emango die amaiera Izaskun auzoko jaiak. Ez da izango, hala ere, egunean

zehir egingo den txapelketa bakarra. Gizonezkoen Toka txapelketa eta mus txapelketa ere egingo dituzte. Eta tartean, bazkaria egingo dute La Piscina tabernaren laguntzaz. ◀

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzailea. Eusko Jaurlaritzan eta Udaletan lan egiteko: Zarautz (6 lanpostu), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara.
Informazioa doan 943 65 01 93.
Gidariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udal ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan,

udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Udal haurtzaindegiek honako langileak behar dituzte: irakasleak, hezitzaileak, zaintzaileak eta laguntzaileak. Informazioa doan. Deitu: 943 65 01 93.
Liburutegiak, harreragileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta Foru Aldundian. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Ur depuratzaileen kontrola, analisi klinikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ezindiak. Errezerbatutako lanpostu finkoak. Gutxienez %33ko ezintasuna duten pertsonentzat. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Basozaina. 17 postu libre Administrazio Publikoan. Informazioa doan. Deitu. 943 65 01 93.
Udalzaingoak. Lanpostu libreak udalbetxean. 943 65 01 93.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Garagardo Festa. 18:00etatik 23:30era, Zerkausian. 17:00etan, haur jolasak eta xakea Plaza Zaharrean.
Tolosa. La Jarako Kultur Astea: 11:30ean Extremadurako meza; 12:30ean toka eta igel txapelketa; 14:30ean bazkaria; 18:30ean Triana dantza taldearen emanaldia.
Villabona. Euskal Herria aitortu, errespetatu lelopean, kontzentrazioa. Bihar, 20:00etan hasita, Berdura Plazan.

HITZALDIA

Tolosa. Zahartzaroko gaitzak nola antzeman eta nola aurre egin. Bihar, 18:30ean, Harizpe elkarteko 1. solairuan.

JAIAK

Alegia. Kalebehera. 11:30ean palako finalak; 12:30ean herriko dantzarien emanaldia; ondoren, txakoli dastaketa; 14:30ean bazkaria; 17:00etan haur eta gaztekoen eskupilotako finalak; ondoren, Alegiako sokatira olinpiada; 21:00etan zahagi ardoa; ondoren, I. Mus Txapelketa.
Tolosa. Izaskun auzoa. 11:00etan auzoko hildakoaren aldeko meza; 12:00etan Gizonezkoen Toka Txapelketa; 14:30ean bazkaria; ondoren, mus txapelketa; 16:30ean Emakumezkoen Toka Txapelketa.

ZINEMA

Tolosa. Fahrenheit 9/11. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.

Eserita, karta jokoan

TOLOSA ▶ Gaur amaituko da La Jara Extremadurako zentroak antolatutako Kultur Astea; bazkaltzeko Extremadurako eltzekoa prestatuko dute



Tute eta mus txapelketak jokatu zituzten atzo La Jara kultur zentroan; uzta txapelketa, berriz, gaur izango da. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Tutean eta musean jokatzen pasatu zuten arratsaldea La Jara elkarteko hainbat kidek. Kultur Astea dela-eta antolatutako txapelketak jokatu zituzten atzo. Gizonezkoak, emakumezkoak, gaztetxoak... denak nahastutako bikoteak osatu eta mahaiaren bueltan eseri ziren joko batean zein bestean aritzeko. Uzta

Txapelketa, berriz, gaur jokatuko dutela adierazi dute antolatzailerak.

Urteroko Kultur Asteetan errepikatu ohi diren txapelketak dira aipaturikoak; izan ere, «arrakasta dutelako» errepikatzen dituztela azaldu dute antolatzailerak. Aurten, 11. edizioa bete du Kultur Asteak. Gaur, Flor de Jara abesbatza entzuteko aukera izango da Arrameleko San Juan basilizian.

Tokiko zaporeak

Eguerdietan, herri bazkaria egingo dute La Jara kultur zentroko elkarteak. Urtero bezala, aurten ere Extremadurako jaiak prestatuko dituzte. Aurten, zehazki, «Extremadurako eltzekoa» prestatuko dutela azaldu dute antolatzailerak, eta berrogei lagun inguru bilduko dira bertan.

Bazkal ondorena Semblante

Andaluz dantza taldeak alaituko du. Lasarteko dantza taldearen emanaldia atzorako iragarritako zegoen, baina gaur egitea erabaki zuten Donostian zegoen beste ekitaldi bat tarteko.

Beste dantza talde baten, Andoingo Triana dantza taldearen, emanaldia izango da ondoren. Eta jarraian egingo duten garaikurren banaketarekin amaituko da La Jara antolatutako Kultur Astea.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Haritz Artano (Alegia).
 Gaur 2 urte.
 Etxeko partetik.



URTE ASKOAN
Gorka 'Kule'.
 Laportaren partetik.



URTE ASKOAN
Asier Artola Ormazabal (Amezketak).
 Gaur 6 urte. Ondo pasa eguna familia osoaren partetik.



URTE ASKOAN
Iker Hinojosa (Villabona).
 Zorionak biharko partez, Iñigo, Marijo, Lander eta Maitaneren partez. Muxu handi bat.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaltzako bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila eskert!